

EUSKARA. Goierriko euskaltegien sortzaile, irakasle, itzultzaile eta zuzentzailea da saritua

Dionisio Amundarain euskaltzaleak jaso du 2001eko Anton Abbadia saria

Bizitza osoan «euskara sustatu eta hedatzeko egindako lan mardula» saritu nahi izan dute

Eider Goenaga | **DONOSTIA**

Dionisio Amundarain Sarasolak atzo jaso zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak euskararen zabalpen, sustapen eta normalizazioaren aldeko lanagatik ematen duen Anton Abbadia saria. Hori dela-eta, «Dionisiok euskararen sustapen eta normalizaziorako bizitza osoan egindako lan mardula» izan zen sari banaketa ekitaldian parte hartu zutenen artean gehien entzundako esaldia.

Goierriko euskalduntze eta alfabetatzeko eskolen sortzaile, irakasle, zuzentzaile, itzultzaile eta fraide beneditar, hori guztia da Dionisio Amundarain; eta alor bakoitzean egindako lana saritu nahi izan du Foru Aldundiko Kultura Sailak.

Luis Bandres diputatuak horrela arrazoitu zuen Amundaraini atzo emandako saria: «Euskararen biziberritzeko ahalginak zeresan nabarmena izan du euskaldunak alfabetatu eta euskara irakasteko lanak, bestela ez baitzen erraz horren beharraren kontzientzia hartuko. Egun ezagutzen ditugun euskaltegiak aitzindari horiei esker ditugu. Merezimendu horiek kontuan harturik jasoko du saria Dionisio Amundarainek».



Xabier Laka eskultoreak egindako oroitarria eman zioten, atzo, Amundaraini.

Amundarainek, hitz horiek eta saria eskertzearekin batera, saria «euskalgintza osoaren lanaren aitoren gisa» hartzen zuela adierazi zuen. Ildo horretan, saria honakoei eskaini nahi izan zien: euskalduntze eta alfabetatzeko jarduten duten eta jardun dutenei; itzulpengintza

«inolako formaziorik gabe» landu zutenei eta egun lantzen dutenei; eta euskarazko «luma lanean» dihardutenei eta lan hori ezagutzen dutenei.

Euskararen sustapen eta normalizazioan «aurrerapen» ugari egin direla ere aitortu zuen Amundarainek; «baina oraino

asko gelditzen da egiteko», gaineratu zuen. «Ildo horretan, besteak beste, lehen aipaturako hiru alorren sozializazio mailan sakontzea da egiteko lan handienetako bat; hiru alorrekiko kontzientziazio mailan sakontzea, alegia», adierazi zuen Amundarainek.

BOROA

Herri galdeketa aldatu izana «errespetu falta» dela dio oposizioak

Erredakzioa | **BILBO**

Boroako industri gunean eraikitzea den zentral termikoari buruzko herri galdeketa baldintzak aldatzeko Begoña Azarloza Zornotzako alkateak eta EAJ taldeak hartutako erabakia «errespetu falta» dela salatu dute oposizio-ko alderdiek eta Zornotza Bizirik plataformak. Hori dela eta, jatorrizko baldintzak mantentzea eskatu diote.

Urtarrilaren 20rako deituta dagoen herri galdeketa baldintzak azaroren 27ko udalbatzak onartutako berak izatea eskatu zuen Zornotza Bizirik plataformak atzo. Hau da, galdeketa galdera honako hau izatea: «Ziklo konbinatuko zentral termikoa Boroan kokatzearekin ados zaude?»

Ostera, Azarloza eta EAJk berriki hartu duten erabakiaren arabera, zornotzarrek erantzun beharko duten galdera hau izango da: «Boroako industri gunearen erabilerrak aldatu, eta indar elektrikoa sortzeko instalazioak erabilera ez onartuen barruan jasotzearekin ados zaude?».

Azarlozak ez duela «bere hitza bete» salatu zuen Zornotza Bizirik-ek, eta «ezinbestekotzat» jo zuen jatorrizko galdera mantentzea, alegia, ES-Bren proiektuari aipamen zuzena egitea.

Era berean, bozkatzeko ordutegia zabaltzea eta botoa postaz eman ahal izateko aukera izatea ere eskatu zuen.

Oposizioko alderdiak

IU-EB alderdiak, bestalde, «antidemokratikotzat» jo zuen EAJren udal taldeak hartutako erabakia, eta berau aldatzea eskatu zion. Era berean, zentralaren kontrako bere jarrera berretsi zuen.

Ibon Arbulu Batasuneko Mahai Nazionaleko ordezkariak EAJren eta alkatearen jarrera eta «herritarren partaidetza zuzena ahalbidetuko duen prozesu demokratiko eta garden bati aurre egiteko borondate politikoa eza» salatu zituen.

DIONISIO AMUNDARAIN HIZKUNTZALARI ETA IRAKASLEA

«Hizkuntza bat galtzen asko kostatzen da, baina berreskuratzen askoz ere gehiago»

E.G. | **DONOSTIA**

Saria jaso eta ekitaldia amaitu ostean hitz egin genuen Dionisio Amundarainekin, atzo. Ekitaldian egondako ezagun, lagun eta senideak agurtu aurretik, tarte txiki bat eskaini zion EGUNKARIARI.

■ **Euskara sustatu eta normalizatzeko bizitza osoan egindako lan mardula aipatu dute zuri saria emateko argudio gisa. Zer sentitu duzu hori entzunda?**

Nik uste dut lan bat egin dugula, ez nik bakarrik; lagun talde handia elkartu ginen, eta guztien artean lortu dugula berealdiko lan bat egitea. Hori oraindik ez dut uste guztiz

ezagutzen denik, baina bere fruituak emango dituela uste dut.

■ **Orain ere ikus daitezke fruitu horiek.**

Bai, orain ere ari da bere fruituak ematen. Hor dago Lazkao Maizpide bezalako euskaltegi-barnetegiak; nire ustez, harrobi handia da euskalgintzarako. Pentsatu, orain bertan ere, hilero-hilero 120-125 lagun daudela barnetegiak egun osoz. Eta esan genezake urte batean euskaldundu egiten direla, eta oinarri sendoak jartzen direla. Nire ustez, hori lorpen handia da.

■ **Aspaldi hasi zinen zu euskararen aldeko lanean; artean egoera oso kaskarra**

zen. Nola ikusten dituzu gauzak orain?

Ni 60. urtean hasi nintzen beste lau lagunekin; eta gaur, berriaz, euskara landu historian inoiz ez bezala egin da, eta jende asko dago dakiena eta euskara ondo landu duena. Baina, nire ustez, falta zaigu horren erroak herrian botatzeta, jendeak erabili dezana. Hori da daukagun eginkizun handiena. Hori nola lortu? Hori ez da mirariz egiten, egunez egun urratsak egiten joan behar dira. Izan ere, hizkuntza bat galtzen asko kostatzen da, baina berreskuratzen askoz ere gehiago; eta urte luze-etako lana izango dela uste dut.



■ **Itzultzaile, zuzentzaile, irakasle... Hautatuko al zenuke horien artean kuttunago bat?**

Niretzat, dudarik ez dago, elizen arteko Bibliaren itzulpena dela lan zoragarri eta ikusgarriena. Talde lanean egin genuen, eta euskara bizi-bizi batean egitea lortu genuen.